ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 25a, asteazkena • 136 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

44/2026 Foru Dekretua, azaroaren 17koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Gobernu Kontseiluaren ekainaren 14ko 1074/1988 Foru Dekretuaren aldaketa. Dekretu horrek arautzen ditu aldundi honek Arabako Lurralde Historikoko udalerriei eta toki erakunde txikiei laguntza juridikoa emateko arauak

Ohitura izan da Arabako Foru Aldundiak lurralde historikoa eratzen duten toki erakundeei laguntza eta aholku teknikoa ematea.

Arabako Foru Aldundiak Arabako toki erakundeei ematen dien laguntza moduen artean, garrantzi berezikoa da toki erakunde horien eskumenei buruz ematen dien aholku juridikoa, bai eta judizioko letradu laguntza ere.

Bi eginkizun horiek Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 14ko 1074/1988 Dekretuaren bidez arautu ziren, zeinak, Arabako Foru Aldundiak toki erakunde txikiei eman beharreko laguntza juridikoaren osagarritasun eta borondatezkotasun printzipioetatik abiaturik, haren xedea eta prozedura ere ezarri baitzituen.

1074/1988 Dekretuak hiru kapitulu zeuzkan. Lehenbiziko kapituluak, xedapen orokorrak izenburua baitu, Arabako Foru Aldundiak eman beharreko laguntza juridikoaren oinarri izan behar diren printzipio orokorrak ezartzen ditu, eta laguntza hori eska dezaketen toki erakundeak zeintzuk diren definitzen.

Bigarren kapituluak, berriz, Foru Aldundi honek ematen duen laguntza juridikoaren bi moduak jasotzen zituen: batetik, udalerrien eta gainerako toki erakundeen eskumenekin zerikusi zuzena duten gaiei buruzko aholku juridikoa (kapituluaren lehenbiziko atala), eta, bestetik, toki erakundeak judizioan defendatzea, prozedura batean alderdi izatea gertatzen zaien bakoitzean, (kapituluaren bigarren atala).

Azkenik, 1074/1988 Dekretuaren hirugarren kapituluak toki erakundeei laguntza juridikoa emateko prozedura arautzen zuen. Prozedura horretan, labur esanik, honako hauek dira urratsak: letradu laguntza edo defentsa nahi duen toki erakundeak eskaera egin behar du aldez aurretik, idatziz, eta, ondoren,Toki Erakundeentzako Lege eta Ekonomia Aholkularitzarako Zerbitzuak aztertu behar du ea interes hori bideragarria den eta bidezkoa ote den laguntza ematea. Laguntza ematekotan, zerbitzu horrek berak zuzenki eman ahal du, edo Aldunditik kanpoko letradu bat izendatu horretarako.

Azken kasu horretan, laguntza hori zera izan ohi da, Arabako Foru Aldundiak ordaintzea erakundearen letradu defentsa egiteko eginkizuna eman zaion letraduaren ordainsariak, bai eta toki erakundea ordezkatu duen prokuradorearen eskubideak ere, Foru Dekretuaren 9. artikuluak ezartzen duen bezala.

Ondoren, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 9ko 60/2015 Foru Dekretuaren bidez, 1988ko Dekretua aldatu zen, Arabako Foru Aldundiak prozesu kostuen ordainketa hori gauzatzeko alderdiak mugatzeko, eta, zehazki, ordainketa horretatik berariaz baztertzeko auzilariak izan ditzakeen kondenak. Halaber, kanpoan geratu zen auzian sortutako kostuak aurkako alderdiari ordaintzeko kondena, bai eta auziaren prozesu bilakaeran gerta litezkeen adituen aditu-irizpenak edo bestelako txostenak ordaintzeko, auzian halakorik izan bada; izan ere, lehen adierazi dugun bezala, Dekretuaren 9. artikuluaren arabera, Arabako Foru Aldundiak letradu ordainsariak –letradua Arabako Foru Aldundiarena ez bada– eta toki erakundearen ordezkari jardun den prokuradorearen eskubideak ordaintzen lagunduko die lurralde historikoko toki erakundeei, baina ez prozesuan parte hartu duen beste edozein profesionalen ordainsariak edo beste gastu batzuk.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Beste alde batetik, gerta daiteke epaiak toki erakundearen kontrako alderdia kondenatzea auzian eragindako kostuak ordaintzera. Bada, horrelako kasuetan, laguntza juridikoa eta judizioko defentsa Zerbitzu honetako letradu batek eman dituenean, zentzuzkoa da Arabako Foru Aldundiak laguntza jaso duen toki erakundeari eskatu ahal izatea itzul diezazkiola ordaindu beharrekoak izan diren ordainsariak, behin judizioan auzia galdu duen alderdiak ordainsariok ordaindu ostean; osterantzean, bidegabeko aberastea gertatuko litzateke, toki erakundea auzi kostuen zenbatekoa ordaindu gabe geratuko bailitzateke, judizioko defentsa Arabako Foru Aldundiak bere letraduen bitartez emana izanik.

Aipatutako arrazoiengatik, abenduaren 9ko 60/2015 Foru Dekretuak aurreko 1074/1988 Foru Dekretua aldatu zuen, testua eta edukia osorik mantenduz, baina adierazitako zentzuan gehitze txikiak sartuz. Gehitze horiek ordainsarien ordainketari buruzko 1074/1988 Foru Dekretuaren 9. artikuluari bakarrik eragin zioten.

60/2015 Foru Dekretuak, aurreko 1074/1988 Foru Dekretuak bezala, letradu defentsatik kanpo uzten zituen jurisdikzio penalaren aurrean bideratu beharreko gaiak.

Hala ere, gaur egungo munduan, eta teknologia berriak bizitzaren eremu guztietan asko erabiltzen direnez eta gizartearen globalizazio digitalaren ondorioz gero eta erabiltzaile gehiago daudenez, delinkuentzia dimentsio horretara ere hedatu da. Hedapen horrek, pertsona fisikoei ez ezik, pertsona juridikoei ere eragin diezaieke, besteak beste, administrazio publikoei. Egia da, delitu informatikoak edo ziberdelituak eta segurtasun mehatxuak esponentzialki areagotu dira.

Horregatik, eta ingurune digitalean egiten diren mota horretako delituen berritasuna eta arriskua kontuan hartuta, komenigarria dirudi Arabako Foru Aldundiak foru dekretu honen 3. artikuluan jasotako toki erakundeei ematen dien letradu defentsaren barruan sartzea zigor arloko jurisdikzioaren aurreko defentsa ere, baina mota horretako delitu informatikoetara edo ziberdelituetara mugatuta.

Azkenik, Foru Dekretuan eguneratu egin behar da, halaber, toki erakundeen arloan eskumena duen sailaren izena (gaur egun, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saila da), bai eta Lurralde Orekaren Zuzendaritzari atxikitako zerbitzuarena ere, lurraldeko toki erakundeei laguntza juridikoa eta letradu defentsa emateko ardura baitu.

Horrenbestez, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea ekainaren 14ko 1074/1988 Foru Dekretuaren 10. artikuluaren laugarren apartatua, jurisdikzio penalean bideratu behar diren auzietan letradu defentsa kanpo uzteari eutsiz, aplikazio hori salbuesteko defentsa hori eremu informatikoan egindako delituei edo ziberdelituei buruzkoa denean, betiere toki erakunde eskatzaileak aipatutako foru dekretuaren 3. kapituluan xedatutako prozedura betetzen badu.

10. artikuluko 4. apartatuaren edukia honela geratzen da:

"4. Jurisdikzio penalean bideratu behar diren gaiak, non eta gaia edo auzia ez den toki erakunde eskatzailearen aurkako ustezko delitu informatiko bati buruzkoa".

Bigarrena. Sail eskudunaren izena aldatzea, 60/2015 Foru Dekretuan ematen zitzaion Ekonomia Sustapenaren eta Lurralde Orekaren Saila izenaren ordez, gaur egungo izena ematea, hau da, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saila.

Hirugarrena. Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeei letradu defentsa emateko eginkizuna esleituta duen zerbitzuaren izena aldatzea, 60/2015 Foru Dekretuan Toki Erakundeen Aholkularitza Juridiko eta Ekonomikoko Zerbitzua izenaren ordez, gaur egungo izena ematea, hau da, Aholkularitza Juridikoko Zerbitzua.

Laugarrena. Arabako Foru Aldundiak lurralde historikoko udalerriei eta toki erakunde txikiei laguntza juridikoa emateko arauak ezartzen dituen Foru Dekretu hau argitaratzeko agintzea. Ebazpen honen eranskinean adierazten den bezala geratzen da idatzita.

Bosgarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 17a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua
LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orekaren zuzendaria
JAVIER GORBEÑA GARCÍA

ERANSKINA

Foru Gobernu Kontseiluaren Dekretua, zeinak ezartzen baititu Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoko udalerriei eta toki erakunde txikiei letradu laguntza emateko arauak

HITZAURREA

Ohitura izan da Arabako Foru Aldundiak lurralde historikoa eratzen duten toki erakundeei laguntza eta aholku teknikoa ematea.

Arabako Foru Aldundiak Arabako toki erakundeei ematen dien laguntza moduen artean, garrantzi berezikoa da toki erakunde horien eskumenei buruz ematen dien aholku juridikoa, bai eta judizioko letradu laguntza ere.

Bi eginkizun horiek Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 14ko 1074/1988 Dekretuaren bidez arautu ziren, zeinak, Arabako Foru Aldundiak toki erakunde txikiei eman beharreko laguntza juridikoaren osagarritasun eta borondatezkotasun printzipioetatik abiaturik, haren xedea eta prozedura ere ezarri baitzituen.

1074/1988 Dekretuak hiru kapitulu zeuzkan. Lehenbiziko kapituluak, xedapen orokorrak izenburua baitu, Arabako Foru Aldundiak eman beharreko laguntza juridikoaren oinarri izan behar diren printzipio orokorrak ezartzen ditu, eta laguntza hori eska dezaketen toki erakundeak zeintzuk diren definitzen.

Bigarren kapituluak, berriz, Foru Aldundi honek ematen duen laguntza juridikoaren bi moduak jasotzen zituen: batetik, udalerrien eta gainerako toki erakundeen eskumenekin zerikusi zuzena duten gaiei buruzko aholku juridikoa (kapituluaren lehenbiziko atala), eta, bestetik, toki erakundeak judizioan defendatzea, prozedura batean alderdi izatea gertatzen zaien bakoitzean, (kapituluaren bigarren atala).

Azkenik, 1074/1988 Dekretuaren hirugarren kapituluak toki erakundeei laguntza juridikoa emateko prozedura arautzen zuen. Prozedura horretan, labur esanik, honako hauek dira urratsak: letradu laguntza edo defentsa nahi duen toki erakundeak eskaera egin behar du aldez aurretik, idatziz, eta, ondoren, Toki Erakundeentzako Lege eta Ekonomia Aholkularitzarako Zerbitzuak aztertu behar du ea interes hori bideragarria den eta bidezkoa ote den laguntza ematea. Laguntza ematekotan, zerbitzu horrek berak zuzenki eman ahal du, edo Aldunditik kanpoko letradu bat izendatu horretarako.

Azken kasu horretan, laguntza hori zera izan ohi da, Arabako Foru Aldundiak ordaintzea erakundearen letradu defentsa egiteko eginkizuna eman zaion letraduaren ordainsariak, bai eta toki erakundea ordezkatu duen prokuradorearen eskubideak ere, Foru Dekretuaren 9. artikuluak ezartzen duen bezala.

Ondoren, Diputatuen Kontseiluaren abenduaren 9ko 60/2015 Foru Dekretuaren bidez, 1988ko Dekretua aldatu zen, Arabako Foru Aldundiak prozesu kostuen ordainketa hori gauzatzeko alderdiak mugatzeko, eta, zehazki, ordainketa horretatik berariaz baztertzeko auzilariak izan ditzakeen kondenak. Halaber, kanpoan geratu zen auzian sortutako kostuak aurkako alderdiari ordaintzeko kondena, bai eta auziaren prozesu bilakaeran gerta litezkeen adituen aditu-irizpenak edo bestelako txostenak ordaintzeko, auzian halakorik izan bada; izan ere, lehen adierazi dugun bezala, Dekretuaren 9. artikuluaren arabera, Arabako Foru Aldundiak letradu ordainsariak –letradua Arabako Foru Aldundiarena ez bada– eta toki erakundearen ordezkari jardun den prokuradorearen eskubideak ordaintzen lagunduko die lurralde historikoko toki erakundeei, baina ez prozesuan parte hartu duen beste edozein profesionalen ordainsariak edo beste gastu batzuk.

Beste alde batetik, gerta daiteke epaiak toki erakundearen kontrako alderdia kondenatzea auzian eragindako kostuak ordaintzera. Bada, horrelako kasuetan, laguntza juridikoa eta judizioko defentsa Zerbitzu honetako letradu batek eman dituenean, zentzuzkoa da Arabako Foru Aldundiak laguntza jaso duen toki erakundeari eskatu ahal izatea itzul diezazkiola ordaindu beharrekoak izan diren ordainsariak, behin judizioan auzia galdu duen alderdiak ordainsariok ordaindu ostean; osterantzean, bidegabeko aberastea gertatuko litzateke, toki erakundea auzi kostuen zenbatekoa ordaindu gabe geratuko bailitzateke, judizioko defentsa Arabako Foru Aldundiak bere letraduen bitartez emana izanik.

Aipatutako arrazoiengatik, abenduaren 9ko 60/2015 Foru Dekretuak aurreko 1074/1988 Foru Dekretua aldatu zuen, testua eta edukia osorik aldatuz, baina adierazitako zentzuan gehitze txikiak sartuz. Gehitze horiek ordainsarien ordainketari buruzko 1074/1988 Foru Dekretuaren 9. artikuluari bakarrik eragin zioten.

60/2015 Foru Dekretuak, aurreko 1074/1988 Foru Dekretuak bezala, letradu defentsatik kanpo uzten zituen jurisdikzio penalaren aurrean bideratu beharreko gaiak.

Hala ere, gaur egungo munduan, eta teknologia berriak bizitzaren eremu guztietan asko erabiltzen direnez eta gizartearen globalizazio digitalaren ondorioz gero eta erabiltzaile gehiago daudenez, delinkuentzia dimentsio horretara ere hedatu da. Hedapen horrek, pertsona fisikoei ez ezik, pertsona juridikoei ere eragin diezaieke, besteak beste, administrazio publikoei. Egia da, delitu informatikoak edo ziberdelituak eta segurtasun mehatxuak esponentzialki areagotu dira.

Horregatik, eta ingurune digitalean egiten diren mota horretako delituen berritasuna eta arriskua kontuan hartuta, komenigarria dirudi Arabako Foru Aldundiak foru dekretu honen 3. artikuluan jasotako toki erakundeei ematen dien letradu defentsaren barruan sartzea zigor arloko jurisdikzioaren aurreko defentsa ere, baina mota horretako delitu informatikoetara edo ziberdelituetara mugatuta.

Azkenik, Foru Dekretuan eguneratu egin behar da, halaber, toki erakundeen arloan eskumena duen sailaren izena (gaur egun, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saila da), bai eta Lurralde Orekaren Zuzendaritzari atxikitako zerbitzuarena ere, lurraldeko toki erakundeei laguntza juridikoa eta letradu defentsa emateko ardura baitu.

1. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Arabako Foru Aldundiak Arabako Lurralde Historikoko udalerriei eta toki erakunde txikiei ematen dien laguntza juridikoa honako foru dekretu honek arautzen du.

2. artikulua

Foru Dekretu honek aipatzen dituen aholku zerbitzuak honako printzipio hauetan oinarritzen dira, batez ere:

a) Ordezkotasun edo osagarritasun printzipioa: honen arabera, Arabako Foru Aldundiak ematen duen laguntza Arabako toki erakundeek eurek arlo horretan gauzatzea erabakitzen dituzten jardunen ordezko edo osagarri izango da.

b) Borondatezkotasun printzipioa: honen arabera, Arabako Foru Aldundiak laguntza juridikoa emateko, Arabako toki erakundeek eskatu egin beharko dute lehenago, beti.

3. artikulua

Hona nork eskatu ahal izango dizkion Arabako Foru Aldundiari foru dekretu honetan arautzen diren aholku eta laguntza zerbitzuak: Arabako udalerriek –hargatik eragotzi gabe 9. artikuluan 5.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerriei buruz ezarritakoa– eta toki erakunde txikiek, toki erakundeen mendeko organismo nortasun juridiko berezkodunek eta elkarte izaerako beste edozein toki erakundek, hala nola mankomunitate, udal kontsortzio eta elkarteek, bai eta toki erakundeek eratutako partzuergo eta beste ondasun erkidego batzuek ere, betiere zerbitzuok eskatzen dituen erakundeak ez badauka berezko bitartekorik hemen berariaz arautzen diren arloetan.

2. KAPITULUA. LAGUNTZA JURIDIKOA

4. artikulua

3. artikuluan aipatzen diren entitate, organismo eta erkidegoei ematekoa den laguntza juridikoan, honako hauek sartzen dira:

1. Aholku juridikoa ematea.

2. Judizioko defentsa, foru dekretu honek ezartzen duen eran.

LEHENENGO ATALA AHOLKULARITZA JURIDIKOA.

5. artikulua

4. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiak hartuko du bere gain, 3. artikuluan aipatzen diren toki erakunde eta organismoek berariaz eskaturik, udalerrien eta 3. artikuluan aipatzen diren gainerako erakundeen eskumenekin zuzeneko zerikusia duten gaiei buruzko aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna. Aholkularitza hori emateko, kontsultei erantzungo zaie, eta bidezkoak diren txostenak eta irizpenak emango dira.

6. artikulua

Aurreko artikuluan aipatzen den aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak beteko du, salbu eta, kasuaren ezaugarriak direla eta, Foru Aldunditik kanpoko profesionalei agintzea komeni bada.

Hala gertatzen bada, letradu horiei ordainsariak ordaindu behar zaizkienean, 9. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

BIGARREN ATALA JUDIZIOKO DEFENTSA.

7. artikulua

3. artikuluan aipatzen diren toki erakundeei prozedura batean alderdi izatea egokitzen zaienean, judizioan defendatzeko eskatu ahal izango diote Arabako Foru Aldundiari, 3. kapituluan ezarritako prozedurari jarraituz.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

8. artikulua

Berariaz erabakitzen denean prozedura bateko letradu zuzendaritza hartzea, 6. artikuluan aipatzen den Lege eta Ekonomia Aholkularitzako Zerbitzuak hartuko du bere gain letradu zuzendaritza hori, salbu eta letradu laguntza nahi duen erakundeak jardunean den beste letradu bat izendatzen badu; hala egiten badu, Arabako Foru Aldundiari jakinarazi beharko dio, hurrengo artikuluan aipatzen diren ondorioetarako.

9. artikulua

Letradua Foru Aldunditik kanpokoa bada, haren ordainsariak eta toki erakundearen ordezkari jardun duen prokuradorearen eskubideak, ordezkaritza hori aginduzkoa baldin bada, Foru Aldundiak ordainduko ditu, osorik edo partez, kasu bakoitzean zer dagokion, bere ohiko aurrekontuan urtero helburu horrekin egiten den esleipenaren kontura.

Foru Aldundiak libreki erabakiko du osorik edo partez ordainduko dituen, horretarako kontuan hartuz ordainsarien edo eskubideen kontuaren zenbatekoa eta aurrekontuko esleipenean erabilgarri dagoen zenbatekoa.

Aurreko hori gorabehera, Foru Aldundiak ezingo du inoiz ordaindu Arabako abokatuen eta prokuradoreen elkargoek onartutako arauetan dena delako auzi edo prozedurarako ezarritako gutxienekoa baino diru zenbateko handiagoa.

Artikulu honetan eta aurrekoan xedatutakotik kanpo geratzen dira 5.000 biztanle baino gehiagoko biztanleko udalak eta haien mendeko organismoak.

9. bis artikulua

Arabako Foru Aldundiak ez dizkio ordainduko toki erakunde auzilariari honako kontzeptu hauek:

a) Azaroaren 20ko 10/2012 Legeak ezarritako judizio tasak, baldin eta horiek eskatzekoak badira.

b) Toki erakunde auzilariak prozesuan aurkezten dituen aditu txosten edo irizpenak, toki erakunde horren kontu izango baitira beti.

c) Kontrako alderdiari eragindako auzi kostuak, baldin eta auziaren ondorioz toki erakunde auzilaria horiek ordaintzera kondenatua bada.

d) Hala gertatuz gero, kondenan toki erakunde auzilariari ordaintzeko ezarri zaizkion diru zenbatekoak.

Horrez gainera, auzian emandako epaiak toki erakundearen kontrako alderdia kondenatzen badu toki erakundeari eragindako auzi kostuak ordaintzera, eta toki erakundeari Arabako Foru Aldundiaren letraduaren bitartez eman bazaio laguntza juridikoa, Arabako Foru Aldundiak toki erakundera joko du auzi kostuen zenbatekoa ordaindu diezaion berari, horiek kontrako alderdiak egiaz ordaindu baditu.

10. artikulua

Ezingo da letradu defentsarik eman:

1. Arabako Foru Aldundiaren beraren kontra edo 3. artikuluan aipatzen diren erakunde edo organismoetako edozeinen kontra baliatzen direnean akzio judizialak.

2. Udal edo kontzeju bateko kide batek eskaera partikularra egiten duenean udal edo kontzeju horren erabaki baten kontra jotzeko, berak kontrako botoa eman duela-eta.

3. Toki erakundea administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioan defendatzeko, errekurtsoa aurkeztu zaion erabakia Arabako Probintziako Lege eta Administrazio Erakundearen ebazpen bat bada, aurkeztu zaion egintza edo xedapen bat ezeztatzeko edo baliogabetzeko emana.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

4. Jurisdikzio penalean bideratu behar diren gaiak, non eta gaia edo auzia ez den toki erakunde eskatzailearen aurkako ustezko delitu informatiko bati buruzkoa.

5. Foru dekretu honen beronen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera judizioan defendatzea bidezkoa ez direla irizten zaien gaiak direnean.

3. KAPITULUA. PROZEDURA

11. artikulua

1. Foru dekretu honetan aipatzen diren zerbitzuak emateko, beharrezkoa izango da eskaera bat aurkeztea idatziz, dena delako toki erakundeko alkateak edo presidenteak sinatua, argi eta garbi zehaztuz zein gairi buruz eskatzen den aholkua edo zertarako eskatzen den judizioko letradu laguntza.

Ez dira sartzen hor errazak izanik ahoz erantzuteko modukoak diren kontsultak edo gaiak.

2. Judizioko defentsa eskatu aurretik, toki erakundeak nahitaez eskatu beharko dio Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuari txostena eman dezala argituz ea bideragarria edo posiblea den delako gaiari buruz judizioko defentsa egitea.

3. Judizioan defentsa egiteko eskabidearekin batera aginduzkoa da dena delako udaleko edo toki erakundeko organo eskudunak dena delako gaiari buruz onartutako erabakiaren ziurtagiria aurkeztea, dagozkion judizio akzioak baliatzeko aplikatzekoa den araudiaren arabera.

12. artikulua

Judizioko aholku eta defentsarako eskaerarekin batera, aurretiko ebazpen edo erabakiari dagokion administrazio espedientearen kopia aurkeztu beharko da, eta hori ez da eragozpen izango Arabako Foru Aldundiak, egoki irizten badio, datu eta agiri gehiago eska ditzan.

13. artikulua

Laguntza juridikoaren edo judizioko defentsaren eskaera jaso ondoren, Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak aldez aurreko txostena emango du, laguntza edo defentsa hori ematea dagokion edo ez erabakiz; baiezkoa bada, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren Foru Aginduaren bidez emango da. Aldez aurreko txosten horrek erabakiko du, halaber, laguntza edo defentsa hori aipatu den zerbitzuak eman behar duen edo Foru Aldunditik kanpoko letradu bat izendatuta eman behar den.

14. artikulua

Arabako Foru Aldundiak ez du finantzatuko toki erakundeak aldez aurretik eta berak bakarrik erabakita agindu duen letradu laguntza edo judizioko defentsa, non eta ez duen hala erabakitzen ebazpen funtsatu eta adieraziaren bidez, toki erakundeak hala eskatuta.

15. artikulua

Aholku, kontsulta, txosten edo irizpen bidez emandako laguntza juridikoa ez da inolaz ere izango loteslea toki erakundearentzat, berak egoki iritzitako erabakiak onartuko baititu, betiere erantzukizuna, oso-osorik, berea izango duela.

Azken xedapena

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.25 06:55:43 Z